

Uztailean 15 proiektu aurkeztuko dira HUHEZIn, karrera amaierakoak

2009/07/01

Iritsi da uztaila, eta berorrekina batera, karrera amaierako proiektuak. Oraingo honetan, **15 proiektu aurkeztuko dira** uztailaren lehen hamabostaldian. Horietatik, **5 Ikus-entzunezko komunikazioan, 2 Humanitateak-Enpresan eta 8 Psikopedagogian**. Bi proiektu taldean egingo direnez, guztira 17 ikaslek hartuko dute parte aurkezpen horietan, azken mailakoak, denek ere beharrezkoa dute-eta proiektua gainditzea titulua jasotzeko.



Proiektuak

Hona hemen egun hauetan aurkeztuko direnak, hiru espezialitatetan:

Ikus-entzunezko komunikazioa

- Jon Arriaga: ETBko kiroletako estilo liburua: pilota eta estropadak.
- Zuriñe Etxeberria: Piztu Gasteiz, okupatu lugar.
- Leire Gabikagogeaskoa & Nerea Lopez: Hezkur-muin ematea (Iturri gorri elkarlan).
- Miren Iriondo: Irrati kazetariaren lanaren bilakaera teknologien garapenaren aurrean. Radio Euskadi 1946-2008.
- Ander Monedero: Los Galerna (DVDa).

Humanitateak-Enpresa

- Maddi Iñarra: HUHEZiko barne eta kanpo komunikazioaren azterketa (2005-2009).
- Joana Mendiburu: Komunikazio planaren garrantzia hondakinen atez ateko bilketan.

Psikopedagogia

- Joana Aduriz: TDAH diagnostikoa edota ume bat gure eskolan?
- Arantzazu Goitia: Bi urteko haurren egokitzapen prozesua.
- Keila Guridi: Orientazio zerbitzua.
- Idoia Linaza: Haur hezkuntzan ahozkoa lantzeko hiru sekuentzia didaktiko.
- Nekane Miranda: Gizarte ongizaterako psikopedagogoa.
- Elixabet Pueyo: Guraso eskolaren sorkuntza eta dinamizazioa.
- Estibalitz Seguro: Waldorf pedagogian esperientzia idazketa prozesuaren inguruan.
- Irati Solupe & Usue Lasarte: Txantxangorri aisialdi taldea interkulturalizatzen.